
4.PRAKTIKA:
Atalak: 2.3, 2.4
(2015eko urriaren 7a)

1.- Zeintzuk dira hanburgesen eskaria igo dezaketen faktoreak? Eta hanburgesen eskaintza igo dezaketenak? Zer eragin edukiko luke hanburgesen merkatu orekan izoztutako pizza merkeak agertzea?. Eta McDonald´s-en lana egiten duten gazteengan?

2.- Zer gertatzen da txigorgailuen eskari kurbarekin ogiaren prezioa jaisten denean?. Erakutsi eskaintza eta eskaria grafiko batean prezioa eta oreka kantitatea nola aldatzen diren. Azaldu zergatik prezioa ez den hasierako mailan mantentzen.



3.-Noiz lerratuko da ezkerrera apala den ondasun baten eskaria? Zuzena den erantzuna aukeratu:

a) Kontsumitzaileen errenta gehituz gero.
b) Kontsumitzaileen errenta gutxituz gero.
c) Bere osagarria den beste ondasun baten prezioa gehituz gero.
d) Bere ordezkagarria den beste ondasun baten prezioa gutxituz gero.


4.-Ondoko funtzioen bitartez “X” ondasun baten merkatua deskribatzen dugu:
D: $Q_x^d = 3000 - 400P_x - 2Y$ eta S: $Q_x^s = 1000 + 100P_x$.

a) Kalkulatu eta grafikoki erakutsi merkatu-oreka kontsumitzaileen errenta Y=500 euro denean.
b) Errenta gehitu egin da. Orain Y= 600 euro balio du. Eskaria berria irudikatu eta kalkulatu zenbat erosi nahi den P_x =2 denean. Zein ondasun mota da “X” ondasuna?
c) Oreka berria kalkulatu eta doikuntza prozesua azaldu.

5.- Suposatu eguraldi onak hobetu egiten duela arrainen arrantza:

a) Zer nolako ondorioa edukiko du honek arrainen eskaintza kurban? Eta arrainen prezioan eta oreka kantitatean?
b) suposa dezagun eguraldi onak ere eskatutako arrain kantitatea handitu egiten duela jendeak erosketa gehiago egiten dituelako. Erakutsi honek zer nolako ondorioa duen arrainaren eskari kurban.
c) Zer gertatzen da orekako arrain kantitatearekin eguraldi ona luzatzen denean eta bi ondorio hauek batera ematen direnean?

6.-Suposatu ondoko grafikoetan autoen eskariaren eta eskaintzaren lerradurak (desplazamenduak) erakusten direla:



Lau aukera ikusten dituzu: **(A); (B); (D) eta (E):** Ondoko taula bete, seinaleztatzen den gertakizuna horietako aukeraren batekin identifikatuz:

GERTAKIZUNA	AUKERA
1. Osagarria den ondasun baten prezioa gehitu egiten da.	
2.Ordezkagarria den ondasun baten prezioa gehitu egiten da.	
3.Ekoizpenean hobekuntza teknologikoak aplikatzen dira (kostuak gehituz)	
4.Langileen soldatak jaitsi egiten dira.	
5.Kontsumitzaileen errenta jaitsi (suposatu: autoak ondasun normala)	
6. Kontsumitzaileen errenta jaitsi egin da (suposatu: autoak ondasun apala)	
7.Munduko populazioa gehitu egiten da.	
8.Ekoizpenerako beharrezkoak diren lehengaiak merkatu egin dira.	
9.Kontsumitzaileek autoen prezioek behera egingo dutela espero dute.	
10.Produktugileek autoen prezioek behera egingo dutela espero dute.	
11.Produktugileek mailegu garestiagoak lortzen dituzte.	
12.Kontsumitzaileek mailegu garestiagoak lortzen dituzte.	
13.Enpresa edo saltzaile kopurua gutxitu egiten da.	
14.Krisia amaitzen ari dela eta, kontsumitzaileek soldatak igotzea espero dituzte.	
15.Kontsumitzaileek garraio publikoa gero eta gutxiago erabiltzen dute.	

Ariketak (abenduak 9) mikroekonomia 2015-2016

1.- Ondasun baten merkatu eskaria $D: P = 20 - \frac{1}{50}Q$ da. Merkatua hornitzen bi saltzaile daude kostu totalak berdinak dituztelarik: $KT_i = 3Q_i$; $i = 1,2$. Kalkulatu:

1.1 Salmentak eta prezioa biak kolusioan aritzeko akordioa hartzen dutenean (kartela osatu).
1.2 Cournoten soluzioa.
1.3 Stackelbergen soluzioa (lider 1 eta 2 leader).
1.4 Bertranden soluzioa.
1.5 Aztertu zein den soluziorik hoberena enpresarentzat eta gizartearentzat.

2.- Merkatu bat hornitzen bi saltzaile daude. Ondasuna homogeneoa da eta ondasunaren merkatu-eskaria eta kostuak ondoak dira: $D: P = 15 - \frac{1}{40}Q;\ KT_i = 3Q_i$

2.1 Cournot-en soluzioa kalkulatu
2.2 Bertrand-en soluzioa kalkulatu
2.3 Kolusioaren (kartelaren) soluzioa.
2.4 Mozkinak eta gizarte-kostua kasu bakoitzean

	Cournot	Bertrand	Kolusioa/Kartela
Q_1	160	240	120
Q_2	160	240	120
$Q_1 + Q_2$	320	480	240
P	7€	3€	9€
π_1	640€	0€	720€
π_2	640€	0€	720€
$\pi_1 + \pi_2$	1280€	0€	1440€
Gizarte kostua	320€	0€	720€

3.- Merkatu bat hornitzen bi saltzaile daude. Saltzen duten ondasuna homogeneoa da; merkatu eskaria eta kostuak ondokoak dira: $D: P = 200 - Q;\quad Q = Q_1 + Q_2;$
$KT_1 = 0.25Q_1^2 + 2Q_1 + 300 \qquad KT_2 = 0.5Q_2^2 - 10Q_2 + 200$. Kalkulatu:

3.1 Cournot-en soluzioa
3.2 Stackelberg-en soluzioa "leader" batekin.
3.3 Kolusioaren soluzioa.

	Cournot	Stackelberg	Kolusioa
Q_1	59.07	69.81	49.71
Q_2	50.3	46.73	36.85
$Q_1 + Q_2$	109.38	116.54	86.56
P	90.62€	83.46€	113.44€
π_1	4062.46€	4168.37€	4621.91€
π_2	3595.73€	3075.54€	3669.79€
$\pi_1 + \pi_2$	7687.02€	7243.91€	8291.7€